

## 2. Hitzak fosil

*Juan Inazio Hartsuaga Uranga*



### 2.1. Nor

#### a) Ikasketak / Studies / Estudios

---

- Enpresa Kudeaketa eta Administraritzan lizentziatua Donostiako ESTEn (1975-1980).
- Lizentziatura gradurako tesina, "Euskara Zabaltzeko Marketin Plangintza", Gipuzkoako Foru Aldundiko lehen sariaren irabazle. (1980)
- Euskal Filologia Ikasketak Donostiako EUTGn (1978-1980)
- DEA Hizkuntzalaritzan Pariseko École des Hautes Études en Sciences Sociales (EHESS) eskolan (1982), Sémiologie des Traditions Narratives gaiarekin
- Docteur en Linguistique, Études Basques, Paubeko Unibertsitatean, Euskal eta Indo-europar mitologia ikerketak gaiarekin (1986)

#### b) Argitalpenak / Publications / Publicaciones

---

- Lau arlo nagusi landu ditu: Euskal mitologia (Euskal mitologia konparatua...) antropologia, soziolinguistika, euskara (Hitzal fosil) eta ekonomia.
- Bere lan gehienak honako helbidean daude ikusgai:  
<http://independent.academia.edu/juaninaziohartsuaga>

#### c) Experience / Eskarmentua / Experiencia

---

- Enpresa sustatzaile eta kontsultorea
- Zuzendaritza orokorra eta komertzialeko postuak Gipuzkoako hainbat ETEetan, besteak beste Euskaldunon Egunkarian.
- Hizkuntz Eskubideen Behatokiko Zuzendari ohia
- Aranzadi Zientzia Elkarteko Zuzendaritza taldeko bazkide ohia.

#### d) Harremanetarako / Contac / Contacto

---

hartsuaga[abildua]gmail[puntu]com

## 2.2. Laburpena / Abstrac / Resumen

### a) Laburpena

---

Euskararen isolamenduaren mitoa gure burmuinean barru barrura sartu da, harrotzeko motibo gisa hartuta, eta, ondorioz, kanpoan ezer bilatzeko joera nagusitu da. Biak pentsaera eskasak eta okerrak dira. Kanpoan gako asko dago, Euskal Herritik kanpo eta euskaratik kanpo. Baita hizkuntzalarien kanpo dauden eremuetan. Levy Strauss-en *Les Structures Élémentaires de la Parenté* liburuan esaterako edo antropologia, mitologian eta historian aukera asko eskaintzen dituzten fosil ikusgarriak daude.

Aurrekoaz gain, jolas modura zerbait aurkeztu nahi dut:

- Egur eta argizagi ahotsen arkitektura eta bestearen biltegia balitz, berau sortu zuen hitzaren hipotesia
- Haur eta animaliak haztean, izen neutroak sortzeko, esnesaltzaileraren azalpenak aplikatu (onbe, unive, bildots, ordots...)
- \*Zi = larrua
- \*Gar = tanta
- \*Lan = laino
- Su-gar = Suga-ar, fusio fonetikoa

### b) Abstrac

---

The myth of Basque loneliness has caught deep inside our mind, always and forever ours; pride and lack of need to find anything out. Both are vulgar and wrong thoughts. Outside there are many keys. Not only outside the Basque Euskadi, also outside the field of linguists. In books like *Les Structures Parenté Élémentaires* of Levy Strauss and in fields such as anthropology, mythology and history are amazing fossils that can bring envision opportunities.

There are a few striking:

- a) In architecture, voices like “argizagi and egur”, as if one were the other’s store, propose the hypothesis that created them.
- b) In the offspring of humans and animals to create neutral names, was applied the teachings of the dairy (onbe, unide, bildots, ordots ...)
- c) \* Zi = Larrua (leather)
- d) \* Gar = so (drop)
- e) \* Lan = laino (cloud)
- f) \* Su-gar = Suga-ar, phonetic merger.

### c) Resumen

---

El mito del aislamiento del Euskera ha prendido muy dentro de nuestra mente, siempre y para siempre, motivo de orgullo y ausencia de necesidad de buscar nada fuera. Ambos son pensamientos vulgares y equivocados. Fuera hay muchas claves. Fuera de Euskadi y fuera del Euskera. También fuera del campo de los lingüistas. En libros como *Les Structures Élémentaires de la Parenté* de Levy Strauss y en ámbitos como la

antropología, mitología e historia hay fósiles sorprendentes que vislumbran oportunidades.

Propuestas:

- En la arquitectura de las voces egur y argizagi y como si una fuera el almacén de la otra, proponer la hipótesis del que las creó.
- En las crías de humanos y animales, para crear nombres neutros, aplicar las explicaciones de la lechera (onbe, unide, bildots, ordots...)
- \*Zi = larrua (cuero)
- \*Gar = tanta (gota)
- \*Lan = laino (nube)
- Su-gar = Suga-ar, fusión fonética.

## 2.3. Txostena / Communication / Ponencia

### a) Sarrera

Hitzen azterketa ez dago modan. Ez bakarrik kulturak orokorrean jasan dezakeen beherakadagatik soilik. Kultura zaleen artean ere ez dago modan. Ez da harritzekoa, hainbeste txorakeria entzun eta gero. Jendeak kanpoko gauzen berri gaur baino askoz ere gutxiago zuen garaian, ez hain aspaldiko garaian, urruneko edozein hizkuntzatak hitzen batek azal lezakeen antzekotasun fonetiko nahikoa zen hura euskararekin lotu eta hamaika konklusio trakets ateratzeko. Dena balekoa zen.

Mozkorraldi haren ajeak oraindik bere mende gaituela iritziko nioke. Bakarren batzuk lehengo zahar haien ildotik eta bien bitartean ikasi dugun hainbat gauzari entzungor eginez zernahi esaten jarraitzen badute ere, gehien dakitene jakituria ez da haien gotorleku zuhurretik sobera zabaltzen eta euskaldun arruntak berriz, hitzen azterketatik eta etimologietatik ezer ikastekorik dagoenik zalantza egiten duela esango nuke.



*Eszerrean, Kavirondo-ko Urangatarrak 1932ko argazki batean. Kavirondo, Victoria Aintzirako Ipar Ekialdeko lurraldearen izen zaharra zen. Kavirondo horretan dago Uranga herrixka, Luo tribuaren lurraldean (Obama presidentearen aitaren tribua hain zuzen). Ez dakit Urangakoak diren ala ez, baina Olanotarrak ere tribu honetakoak dira. Honen adibide, eskubiko argazkian dugun Olano Ngamau neskatoaren argazkia, bere facebook-eko profiletik aterea.*


Hitzetan informazio ezkutua egoteak ez du esan nahi hitz guztietan informazio ezkutua dagoenik, fosilak egoteak harri guztiak fosilak izatea esan nahi ez duen bezala. Hamabi, hamahiru urteekin fosil bila estreinakoz abiatzen zarenean harri kozkor orori irizten diozu fosil. Noski ez da horrela. Hasierako zirrara hori epeldutakoan hasten zara ikasten eta bereizten zein lekutara zuzendu behar dituzun ahaleginak eta zein leku bazter dezakezun. Munduan badira ia lau mila miloi urte dituzten harriak ... Baina hori Groenlandiako bazter batean eta Australiako beste batean baino ez da gertatzen. Bizitza osoa eman genezake munduko lau kontinente nagusiak goitik behera miatzen horrelakorik inoiz aurkitu gabe. Eta ez hori bakarrik: Groenlandian eta Australian bertan ere, ia lau mila miloi urteko harriak egonagatik, harri gehienek ez dituzte lau mila miloi urte ...

Etimologiekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Euskara, Pirinioetako bazter hauetan duela 15 edo 20.000 urte hitz egiten zen hizkuntzaren ondorengo zuzena balitz ere, horrek ez du esan nahi gaurko euskarak garai hartako hitz mordoa gordetzen duenik.

Nonbaiten egon daitezke bakarren batzuk, baina egotekotan ere, ez nonahi ez eta ugari ere.

Geologiaren grazia bakarra ez da harririk zaharrena aurkitzea. Lau mila miloi urteko harria ez bada ere, dinosauro baten arrautza fosildua umekiaren hezurtza osoa barruan duela harribitxi paregabea da, 60 miloi urte baino ez baditu ere. Urte kopurua grazia horren zati bat baino ez da. Grazia nagusia, harriak ematen digun informazio kopuruan eta informazio horren kalitatean datza. Harriari erauzten diogun sekretuak du balioa.

Euskararen historiak ez ditu bi atal, bata paleolitoan eta bestea gaurko egunean: Milaka urte luzetako ibilbide etengabea da, eta beraz, horrelakoxeak izango dira ibilbide horrek hizkuntzan utzitako aztarnak: Garai askotarikoak alegia. Eta harriekin bezala, grazia ez dago aspaldikotasunean, erauzten diegun sekretuetan baizik. Esate baterako, IX mendeaz ez dakigu paleolitoaz dakiguna baina askoz gehiago. Eta hurbilago dagoenez, fosilak ugariagoak izango direla uste izan behar dugu. Garai horretako argibideak ematen digun zerbait aurkitzea balio txikikoa litzateke oso aspaldikoa ez delako, ala balio handikoa litzateke ia ezer ez dakigun garai bati buruzkoa delako?



## **b) Serioago eta dibertigarriago**

---

Futbolean jarduteko baloi bat besterik ez dela behar iritziko diote batzuk. Horrelaxe ibiltzen ginen maiz gure haurtzaroko patio garaian, baloi bila joan eta hari ostikoa emanez besterik gabe. Hainbeste ume eta patio bakarra, zer erremedio! Kasik ez zegoen jakiterik nor norekin zen, atezaina nor zen edo zenbat partida jokatzen ari ziren batera patioan (baloiak hainbat partida noski). Izan ere, ongi pentsatu ezker balaia baino zerbait gehiago behar da futbolean jarduteko. Zelaia behar da, marra guztiak ongi mugatuta, atea behar dira, taldeak egin behar dira, atezainak nor diren jakin behar da, arbitroa behar da, araudi garbi bat behar da, denok ezaguna ...

Noski horiek gabe ere jardun dezakegu baloiari ostikoka nolana, baina aurki aspertuko gara. Aipaturiko osagarrietarik zenbat eta gehiago orduan eta txukunago jolastu ahal izango gara eta orduan eta dibertigarriago gertatuko zaigu. Serioago eta dibertigarriago.

Etimologietan ere horixe bera gertatzen da. Zenbat eta tresna gehiago eta zorrotzago orduan eta jolas atseginagoa agitzen da. Zein dira ordea tresna hauek? Ikus ditzagun hainbat.

## Hiztegia

Hau izango litzateke gure adibideko baloia. Ezinbestekoa da. Lehenbiziko tresna. Baina bere horretan eta beste zenbait tresnen ezean zernahi atera daiteke bertatik.

### Bilakabide fonetikoaren arauak

Hitzak ez daude geldirik, aldatu egiten dira denboraren poderioz joera fonetiko jakin batzuen arabera. Hau hizkuntza guzietan gertatzen da salbuespenik gabe. Duela urte batzuk, bi hizkuntzetan hitz bera edo antzekoa topatu ezkerreko bien arteko loturaz hitz egiten hasten ziren. Gaur egun berriz, bi hizkuntzotako bilakabide fonetikoaren arauak ezagunak izan ezkerreko, hitz horrek duela mila urte edo gehiago zein forma zuen jakin daiteke eta sarritan gertatzen da aspaldiko forma horiek elkarren antzik ez izatea batere. Hau da etimologiak proposatzeko garaian zorrozatasuna bermatzeko erabili ohi den tresna nagusia. Ez dut uste etimologiak proposaten inork jardun beharko lukeenik, gutxienez Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* aurrez irakurri gabe.



### Bilakabide semantikoaren aldaketen ezaguera

Hitzen esanahiak aldatu egiten dira. Era askotan gainera. Ikus ditzagun adibide batzuk.

- *Gift* hitza berdin esan eta ahoskatzen da bai ingelesez bai eta alemanez ere. Biak ala biak dira hizkuntza germaniarrak, hurbileko lehengusuak, eta iraganaldi-kidetza horretatik jaso dute biek itxura batere aldatu ez duen hitz hau. Esanahia berriz franko aldatu da: Ingelesez *opari* esan nahi du, eta alemanez berriz *pozoina*. Ikerlariek aurkitu dute bereizketa honen arrazoa. Germaniar zaharren artean, buruzagien hartu-eman eta ohore kodigoek, jasotako opariaren adinekoa itzulian egitera behartzen zuten, eta ohitura gaiztoa bihurtu zen itzuli ezin adinako opariak egitea aurkako buruzagi bati honen desohorea eragiteko, horrek sarritan bere buruaz beste egitera behartzen zuelarik. *Opari* pozoindua.
- Beste hizkuntza batetik maileguz hartzen direnean esanahi aldaketa nabarmenak gertatzen dira zenbaitetan, agian ez delako ongi ulertu, edota hizkuntza bietan bilakabide semantiko ezberdina gertatu delako geroztik. Euskarazko *dezenete* eta gaztelerazko *decente* esate baterako hitz bera izanagatik ez dute esanahian antz handirik. Euskaraz kantitatea edo tamaina adierazteko erabiltzen dugu eta gazteleraz berriz zintzotasuna adierazteko. Edota *gobernar* (agintean jardun) eta *gobernatu* (abereei jaten eman).
- Kutsaketa. Bi hitz maiz elkarren ondoan daudenean bata besteak beste kutsatu egin dezake semantika aldetik. Esate baterako espainolezko *genio* eta *talante* hitzak sinonimoak dira, karakterra adierazten dute. Baina ohituraren poderioz *mal genio* eta *buen talante* esaerak horien aurkakoak liratekeen *buen genio* eta *mal talante* esaerei nagusitu zaizkienez, gaur egun nahiko da *genio* esatea denok *mal genio*


ulertzeko eta *talante* esatea denok *buen talante* ulertzeko. Neutroak ziren hitzak kutsatu egin zaizkigu. Euskaraz horixe bera gertatzen zaigu *atso zaharra* eta *kaka mokordoa* bezalako hitzekin. Garai batean seguru asko atso guztiak ez bide ziren zaharrak eta mokordo (zilindrotxo) guztiak ez ziren kakazkoak.

- Ordezkapena. Artoa Ameriketatik ekarri zuten. Ale haiek ordea ez zuten beraiekin izena ere ekarri eta euskaldunek bertako labore apal bati (*panicum miliaceum*) izena kendu eta etorri berri ederragoari eman zioten. Izengabetuak *arto txiki* izen eskasaz konformatu behar izan zuen aurrerantzean.
- Arrazionalizaketa. Gizakiak oro gauzak ulertzea atsegin ohi du. Eta zerbait ulergaitz egiten bazaigu, aldatzera jotzen dugu ulergarri bihur dakigun. Horregatik esaten diote frantsesek *La Rhune* berez *Larrune* denari, eta horregatik euskaldunek *larrosa* esaten diogu arrosari (laharra delako). Nire begien aurrean ikusi dut, esate baterako, Gazteluko *Sagastilus* izeneko sail bat (sailaren formak lagunduta) *Sagastiluze* nola bihurtu den etxe eta familia beretik atera gabe. *Elutsa* (ospela, laiotza) zer den ahaztu zaigunean, nekez eutsi dakioke izen zaharrari. Saila luzexka izaki, gogoak oharkabea eta ezinbestean egiten du salto *sagastilusetik sagastiluzera*.
- Esanahi alderantzikatzea. Tolosako Santa Luzia auzoko Arretxeko behien esneak hazi ninduen. Arretxeko Maritxuk ekartzen zuen esnea gurera egunero nire haurtzaroan. Gure *esnezalea* zen. Gerora baserri giroan sartzeko aukera izan nuen eta orduan jakin nuen baserriarren hizkeran gu kaletar bezerok ginela *esnezale* eta beraiek berriz *esne saltzaile*. Ondo pentsatuta horrela da era zuzena. Esnea erosten duena da *esnezale* eta saltzen duena *esne saltzaile*. Halere kaletarron erabilpen traketsa nagusitu egin da eta hiztegira jo ezker hantxe aurkituko dugu euskaraz ofizialki eta Euskaltzaindiak oniritzita, *esnezale*, esne saltzaileari esaten zaiola.
- Zeharkako esanahia. *Zehar* hitza erabiliko dugu hain zuzen ere kontzeptu hau argitzeko. *Zehar* hitzak esanahi bat baino gehiago du, baina gaur egun nagusiki ematen dioguna, *zuzen* hitzari oposatzekoa da. Zuzenean egiten ez dena zeharka egiten da. Halere esanahi hau ez litzateke hitzaren esanahi zahar eta jatorra, zeharkako esanahi bat baizik. *Zehar* hitzaren esanahi zahar jatorra “horizontala” da. Klean gabilitzanean, *klean gora*, *klean behea* (garai eta toki batzuetan *klean barrena* ere esaten zena) edo *klean zehar* ibil gaitzke, kale horren erliebearen arabera. Zer gertatzen da orduan leku aldapatsu batean bizi zarenean, euskararen lurraldea bezain leku aldapatsu batean? Bada, aldaparen gogorra arintzeko sigi-sagan ibiltzen zarela. Aldapan gora igo beharrean aldapan zehar zabiltza. Eta aldapan zeharka ibili ahal izateko sigi-saga egin behar duzu ezin bestean. Ezin zara zuzenean joan zoazen lekura. Horregatik zeharka ibiltzea zuzenean ez ibiltzea bihurtzen da: aldapan bizi garelako. Zeharkako esanahia zena esanahi nagusia bilakatzen da.

Gaineko hauek adibide batzuk baino ez dira. Askoz ere gehiago plazara genitzake, baina azalduetakoei aski deritzet zera erakusteko, hots, bilakabide semantikoa, bilakabide fonetikoa baino irregularrago eta noranahikoagoa dela. Hitzak alderatzen ditugunean, semantikoki asko urrundu diren bi hitz jatorri berekoak izatea gerta daitekeela adierazi nahi dut. Halere, urruntze horri ideologikoki koherentea izatea eskatuko behar diogu ontzat hartu ahal izateko. Edozerk ere ez du balio.



*Ezkerreko argazkian, pieza guztiak elkarren artean bikain ezkondu arren irudiak ez badu inolako zentzurik, ezin ontzat eman berreraikitakoa. Eskubikoan berriz, pieza mordoak huts egin arren bistan da zer den irudiak erakusten duena*



### **c) Testuinguruaren ezaupidea eta barneratzea**

Alderaketak ez dira alde-alde egin behar. Historia, arkeologia, paleontologia, mitologia, etnologia, herri-genetika, ... guztiak hortxe daude informazioz gainezka. Hitz alderaketen gidari eta kontrastea izan behar dira. Gure puzzlearen kaxako tapa galduaren irudia dira. Zenbat eta garbiago izan zer nolakoa zen irudia orduan eta errazago gertatuko zaigu piezak ezkondu eta okerrik gabe kokatzea.

Testuinguruaren ezaupidea oso garrantzitsua da. Baina ezaupidea ez da nahikoa. Sarritan, ezaupide horren jabe izanda ere, oker asko egiten dira nor bere burua testuinguru horretan kokatzen ez jakiteagatik, edo ez ahalegintzeagatik. Testuinguru ezagutu eta barneratu egin behar da gainera, interpretazio lanetan egin ohi den okerrik nabarmenena barneratze horren hutsegitetik baitator: Joera trakets bezain hezikaitza baitugu denok, gero testuinguruko ezaugarrien arabera juzkatzeko beste testuingurukoak diren zerak.

Beste garai batera garamatzaten etimologietan sartuta gabiltzanean ahalegin eskerga egin behar dugu haien oinetakoetan sartzen saiatzeko. Beti oker gutxiago egingo dugu honela. Ez dut defuntuekin sartzea gustuko, baina ezin aipatu gabe utzi gai honetaz ari garelarik, Quosque Tandem zorionekoan irakur daitezkeenak esaten ari garenaren aurrez aurreko kontrakoak direla. Alegia, aspaldian izandako testuinguruetan sartzeko inolako ahaleginik ez, eta bai ordea aurrez izandako historia eta prehistoria guztia norberaren testuinguru eta burutazioetan sar arazteko ahalegina.



*Puzzlearen piezekin bihotz bat edo izei bat osatu nahi dugunean kosta hala kosta, piezak behar bezala ezkontzeari men egin gabe, honelakoxeak atera daitezke. Kuriosoak, atseginak, baina norberaren imajinaziotik at batere benetakotasunik gabeak. Testuinguru haintzat hartu gabe egindako hainbat saioen irudi metaforiko ezin argiagoa*



#### d) Kanpora, konpara

---

Euskararen bakardadearen mitoak sakonegi txertatu du gure gogoan, gurea behin eta berriz harrotu beharrarena, eta kanpoan ezerean bila jardutearen alferrekotasuna. Uste arrunt okerrak biak. Kanpoan daude gakoak: Euskal Herritik kanpo, euskaratik kanpo, bai eta hizkuntzalaritzaren eremu beretik kanpo ere sarritan. Lévy-Straussen *Les Structures Élémentaires de la Parenté* bezalako liburuetan, edo antropogia, mitologia eta historia bezalako esparruetan daude, euskararen baitan aurrez ezkutuan pasatako fosil harrigarriak antzemateko aukerak.

Horietan oinarrituta, Historia liburuek aipatzen ez dituzten hiru aro bereizi daitezke gure herriaren ibilbidean, bai eta horiek euskararen utzitako hainbat fosil ere:

- a) Trukaketa orokorreko ezkontza sistemak zabaldu zirenekoa, paleolito garaian. Horren lekuko da *giharreba* hitza. Euskaldunak Asia osoan zehar hedaturiko kultur ezaugarri zahar garrantzitsu bateko kide bihurtzen ditu, euskarari orain arteko lotura paleolitikorik sendoena ematen dio, eta euskaldun zahar haiei buruzko ezusteko argibide etnografiko berriak luzatzen dizkigu. Gaia, Auñamendi Entziklopediako honako bi artikuluetan aurki daiteke: [Senidetasuna](#) eta [Euskal senidetasuna](#)
- b) Trikuharri aroa. Europako kultura neolitiko propioa, jentilen mitologian islatzen dena. *Adur* hitzaren bi adiera hain ezberdinak ulertu eta bat egiteko gakoa ematen digu besteak beste. “Indar majikoa” eta “lerdea” esanahiez iritsi zaigun hitz honen adiera zaharra “trantzea” izan liteke, mitologiatik ikasten dugulako trikuharri aro osoan etorkizuna ikusteko trantzeak zeharo arruntak eta egunerokoak izan zirela, eta trantzean dagoenaz “*adurra dariola*” esateak bikain argitzen duelako gerora gertatu den esanahi ustez elkar-ezin horien aspaldiko batasuna. [Euskal Mitologia Konparatua. Jentilen akabera](#) liburuan eta Auñamendi Entziklopediako [Jentilak](#) eta [Iqarkuntza euskal mitologian](#) artikuluetan. Neolito garaiko ideologiaren ezaupideak bestetik, gako erabakigarriak luzatzen dizkigu, esate baterako Europako euskal hidronimiaren debaterako.
- c) Normandoen kolonizazioa. Berrehun urtez egon ziren normandoak gure artean IX eta XI. Mendeen artean, Historiaren datuen urriak haien eragina gutxiestera eramane ohi bagaitu ere. Halere, haien eragina nabarmena da gure mitologian ([Mateo Txistu](#), [Sanmartintxiki](#)), gure toponimian ([Hitzak fosil](#)), eta badirudi hainbat arrasto utzi ote dituen euskara berean ere ([udala](#), [jentila](#), odeia, eskifaia, ...).

Ongi oinarrituriko aurrekoek gain, ezin izan diot hiztegian lardaska apur bat egiteko tentaldiari eutsi, eta beste hainbat proposamen luzatzen ditut liburuan zehar, gogoaren jostagarri. Hauen artean, nire irudiko zirraragarrienak,

- a) *Egur* eta *argizagi* terminoen balizko egiturakidetzak, eta hitz bat beste baten gordailu gisa definitzeko estrategia sortzailearen hipotesia,
- b) Giza eta animalia kumeen izen neutroa sortzeko esne-zaletasuna adierazten duten terminoak erabili izanarena (*onbe*, *unide*, *bildots*, *ordots*, ...)
- c) \*Zi= *larrua* hipotesia
- d) \*Gar= *tanta* hipotesia
- e) \*Lan= *laino* hipotesia

f) *Su-gar=Suga-ar* batasun fonetikoa

Eta hiztegitxo horretan ez datorren arren, geroago aurkitu bainuen, ez dut aukera joaten utzi nahi hurrengo hau plazaratu gabe, kanpora begiratzeak ekar ditzakeen argibide berrien adierazgarri. Azpiko irudian, Britainia Handian aurkitutako neolito garaiko tresna batzuk ditugu, aizkora edo zokor-mazo izandakoak . Ez da euskal herrian horrelakorik inoiz agertu, baina pentsa liteke teknologia bera zela gutxi gorabehera esparru neolitiko osoan. Nola esango litzaieke tresna horiei aspaldiko euskara hartan?



*Agian aitzurrak? Haitz urratuak, alegia?*